

27 urte dituen mutil honek, Sallabenteko frontoian eman zituen aurreneko pausoak pilota munduan, esku pilotan hain zuzen. Ondoren San Antoniora bizitzera joan eta gomazko paletan astero jokatzen hasi

zen lagunekin Aritzmendin. Egun batean, Jose Onandiak ikusi eta palan probatzeko esan zion. Duela hilabete EUSKO BASQUE-rekin profesional mailan debutatu eta iada 3 partidu jokatuta ditu.

“Ilusioz ekin diot palan jokatzeari”

Ernesto Vieira

-Noiz izan zen debuta?

Pasa den irailaren 18an izan zen, Bilboko Deportibon.

-Zirrara berezirik sentituko zenuen...

Egia esan urduri xamar nengoen. Esku pilota aspaldi utzi eta horrez gero ez nengoen partiduak txuriz jantzi-ta ohitua. Nere inguruko jendea ere urduri eta ilusioz nabaritzen nuen.

-Horien artean Jose Onandia eta Dani Solozabal besteak beste...

Bai, dudarik gabe. Bai Josek zein Danik asko lagundu didate. Beraiei esker bide ate asko ireki dizkirate pala jokalaria profesionala izateko.

-Nola erabaki zenuen pausu hau ematea?

Nere lagunekin Aritzmendi pilotalekuan paletaz ari nintzen egun batez, Jose Onandia hurbildu zitzaidan palan jolasteko dohaiak nituela esanez eta probatzea merezik zuela profesional

mailan. Pala, pilotak eta abar berak lortu zizkidan eta horrela hasi ginan.

-Urtebeterako kontratua sinatu duzu...

Bai. 80 partidu jokatuko ditut urte osoan eta iada 3 jokatuta ditut.

-Zer moduz ikusi duzu zure burua?

Oraindik badut zer hobetu baina dena den, partiduak jokatzen noan neurrian konfidantza hartuko dut.

-Aurrelaria ala atzelaria zara?


Aurrelaria naiz.

-Zein piltatokitik jokatzen dituzu partiduak?

Normalean Bilboko Deportibon edo bestela Durangoko Ezkurdi eta Gernikan ere jokatzen dugu.

-“Ermua” izenarekin jokatzen duzu...

Jose Onandiaren lehengusu bat pala jokalaria bikaina izan zena, “Ermua” izenarekin jokatzen zuen eta haren izena mantentzeko eskatu



Ernesto Vieira, debuta egin zuen egunean.

zidan Josek.

-Etorbizuna nola ikusten duzu?

Nahiko berandu hasi naitzen arren, gaur egungo pala jokalariek 40 urterarte ere jokatzeke gaitasuna azaldu dutenez, ilusio handiz ilusuten dut etorkizuna eta ea

dena ondo joaten den.

-Besterik?

Eskerrak eman bereziki nire debutean Ermutik etorri zen koadrila zabalari eta baita Jose eta Daniri, eskaini didaten laguntzarengatik.

Asier Ibaibarriaga



Adituek ere goraipatu dute bere maila

Dani Solozabal

Zaldibarko Txakon-ek Aitor Totorika, EUSKO-BASQUE-ko burua ezagutzen zenez, Ernesto-ren berri eman genion. Mutil fina da, indartsua eta partiduak jokatuta ahala bere maila erakutsiko du. Nerekin jokatutako palistek eta adituek ere, esaten didate Ernesto-k zeresana eman dezakeela etorkizunean. Amateur mailan ez jokatuta izanak ez dio larregi lagundu. Ermua izena eramatea oso polita da, herri honek zetan, palan eta raketan ere pilotari handiak eman bait ditu. Herrian pala indartu dadin, figuren beharra dago baina hori kirol denekin gertatzen dela uste dut.



Mutil honengan badut esperantza

Jose Onandia

Nik ez dut inungo dominarik nahi. Nik bezela, Jexux Azumendi eta Jorge Artamedik ere lagundu diote mutil honi. Aritzmendin ikusi nuen egun hartan, bere ezkerak liluratu ninduen. Palan jokatzeke ilusiorik bazuen galdetu nion, eta berak baietz. Pala eta pilotak ekarri nizkion eta Dani Solozabalek EUSKO BASQUE-ko nagusiak ezagutzen zitue-nez, aukera ematea erabaki genuen. Beharbada amateur maila pasa gabe profesioaletan hastea eta palan adinez nahiko berandu hasi izanak ez ditu bere aldeko izango, baina apurka apurka bere maila emango duen esperantza handia dut.